



JARDUEREN BALDINTZEN ETA ORDAINKETAREN ARAUTEGIA

- Lehorreko Kirol-jarduerak neguko denboraldi osokoak izanen dira, hau da, urrian hasiko dira eta maiatza akabaila arte iraunen dute.
- Igeriketa ikastaroak hiru hilabetero eskeiniko dira, urrian, urtarrilean eta martxoan. Ikastaro bakoitzak 17 saio izanen ditu.
- Baztanen erroldatuak dauden pertsonak lehentasuna izanen dute jardueretan izena emateko datetan.
- Igeriketako ikastaroan kasuan, lehenengo hiru hilabetean jarduera egiten duten pertsonak lehentasuna izanen dute hurrengo hiru hilabetean jarduera berean izena emateko.
- Jardueretan izena ematea pertsonala eta transferiezina da.
- Jarduera batean izena ematen den momentuan jarduera osoa ordainduko da banku-helbideratze bidez, eta diru hori ez da itzuliko.
- Norbaitek jarduera ordaindu ondotik erreziboa itzultzen badu, zor hori ordaindu arte pertsona hori ezingo da Giltxaurdi udal Kirol instalazioan sartu ezta hurrengo ikastaroetan apuntatu ere.
- Ikastaroetara puntual iritsi behar da.
- Ikastaroetan sartzeko oinetakoak aldatu behar dira.
- Derrigorrezkoa da norberak bere eskuoihala erabiltzea.
- Estera erabiltzen den jardueretan, norberak ekarri beharko du berea.
- Behin ikastaroa akitu ondotik bakoitzak erabili duen materiala desinfektatzea eskatzen dizuegu.
- Aldageletan jende multzoak saihesteko intentzioarekin, ahal den neurrian haurrak aldageletan bakarrik sartzea gomendatzen da.
- Aldageletan jende multzoak saihesteko intentzioarekin, ikastaroa akituta aldageletan egoteko iraupena mugatua izanen da, 15 minutu izanen ditu ikasleak prestatzeko eta aldagelatik ateratzeko.
- Instalazioko langileek emanen dituzten arauak errespetatu behar dira.